

## Hezkuntza zentzora sartzea eta egokitzea

Hilabete bat edo bi lehenago, komenigarria izan daiteke familia bi edo hiru aldiz eskolara joatea bisita moduan, umeaz arduratuko den hezitzailearekin hitz egitera. Bertan zein ondo pasatuko duen, beste ume batzuekin jolastuko duela, zenbat jostailu dauden, eta abar adieraziko diogu umeari; izan ere umeak, txikiak izan arren, gauza guztiez konturatzen dira.

Gutxienez aste beteko prozesua aurrera eramán daiteke umea pixkanaka eskolara egokitzeko. Hala ere, familiek hurrengo puntuetan aurki ditzakete egoera eta leku berrira egokitzeko argibideak:

- Ikastetxeak duen prozedura errespetatu eta onartu behar da.
- Lehenengo egunetan ez da komeni agur esateko ordua luzatzea.
- Agur egiteko momentuetan gurasoen jarrera positiboa izango da.
- Umeek, hezitzaile eta gurasoen artean harreman ona dagoela ikusi behar dute.

Eskolatzearen lehen egunaren esperientzia zaila da, bai gurasoentzat, baita seme-alabentzat ere. Gurasoek galdera asko izango dituzte: haurtzaindegi aproposa aukeratu al dut? Nire seme-alaba pozik egongo al da? Hezitzaileekin lehenengo elkarrizketa bat eduki arren, gurasoek horrelako zalantzak izan ohi dituzte.

Ikastetxe bateko programak umearen errutina aldatuko du. Ikastetxea leku berria da, jende, usain eta zarata ezezagunez bete. Haurra zentro honetara, ordutegi berri batera eta gurasoengandik urrun egotera ohitu beharko da.

24 hilabeteko haurrekin *Ikastetxera* egokitzeko prozesu horretan lortu beharreko helburuak honako hauek dira:

- Gela ondo ezagutzea, segurtasuna eskaintzen dion tokia bezala ikustea, espazio eta denborazko erreferentzia puntuak mantenduz (Espazioa: jolasteko, bazkaltzeko, lo egiteko, aldatzeko, eta abarreko lekua. Denbora: bazkaltzeko, siesta egiteko, aldaketak egiteko... ordutegiak mantendu).
- Jangela ezagutzea.
- Poliki-poliki jolastokia ezagutzea.
- Hezitzailearen ahotsa ezagutzea.

2-3 urteko umeen kasuan:

- Espazioa-gela ezagutzea: objektuak, apaingarriak, altzariak, etab.
- Materiala ezagutzea.
- Komuna ezagutzea.

- Jolastokia ezagutzea.
- Jangela ezagutzea.
- Erizaindegia ezagutzea.

Egoera berrira egokitzeko prozesu honetan ezinbestekoa da haurrak parkean igaroko duen denbora antolatzea, beste haurrekin harremanetan egon dadin. Izan ere oso inportantea da gelatik kanpo, haurren arteko harremanak bultzatzea.

## **LABURPENA**

Eskolara ohitzea haurraren arazoa baino gehiago gurasoen eta hezitzaileen jarreraren araberakoa izan daiteke. Oro har, haurrek ez dakite nora doazen baina zentroko hezitzaileek prest egon behar dute haurrari harrera egiteko eta gurasoek agur esateko. Prestaketa lan hori haurraren gurasoen eta zentroko hezitzaileen artean egin beharreko lana da.

Dra. Ainhoa Manzano Fernández  
Dr. Juan Luis Martín Ayala  
ETXADI  
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa  
Centro Universitario de Psicología de la Familia